



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Apurtzaileak gustuko ditugu irratigintzan”

Roberto Moso | Komunikatzailea

Berari esker Santurtziko bazterrak zentralitatea hartu zuen gure rock pizkundean. Euskaraz ezaigutu genuen kantari eta ostean erdaraz gozatu ahal izan dugu esatari-saltsero gisa.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazia: Iñigo Azkona

Bururatzten zaizkidan galdera gehienak honelakoak dira: Santurtzin bizi zinen eta Sopelan bizi zara, punkya zinen eta...

Sopelan bizi naiz eta gustura. Bizi izan naiz Bilbon eta Donostian ere. Punkaren gauza asko gustuko izan ditut baina punkya? Ez dakit, nire kasuan hobe esatea “saltsa-rockero” edo...

Zer gustatzen zaizu punk mugidatik eta zer Donostiatik?

Punk mugidatik hippien rolo aspergarriarekin amaitu zuela eta *do it yourself* filosofia hori martxan jarri zuela. Zenbait talde ere gustuko izan ditut: Clash, Ramones, UK Subs, Stranglers, Pistols, Eskorbuto... Donostia bera asko gustatzen zait eta bertakoek beti abangoardian egoteko duten grina hori ere gustatzen zait.

Garai hartan inork galdetuko zizun: Zarama izateak nora zaramatza?

Ba ez. Bersolaritza ez zegoen horren zabaldua... Bizitzak berak zaramara garamatza.

Santurtzin sekulako rock mugida euskaraz zegoela pentzarazi zeniguten!

Rock mugida galanta zegoen. Euskaraz?: Zarama, Urreztietara Konexioa, Ekintzak, Einbidou... herri erdalduna izateko ez dago txarto...

Zein nahiago duzu: Santurce c-z ala Santurtxi tx-z? Ez du balio Santurtzi erantzuteak!

Santurce jakina. Puerto Ricon beste bat dago, oso handia eta bertakoak *santurcinos* dira.

Radio Euskadira bueltatu zara berriki: hitza hartzen duzun bakoitzean “festa” zaitugu, lehen bezala... Baina egungo irratigintzak ez ditu bihotz libreak maite!

“Irratigintzak” ez dakit, baina entzulegoak eskertzen ditu, eta nik ere bai. Adibidez, ideologikoki badirudi inori ez zaiola gustatzen Jiménez Losantos, baina ezkerreko jende pilo batek entzuten du bere estiloa

oso zuzena eta dibertigarria delako. Apurtzaileak gustuko ditugu irratigintzan.

Bitartean telebistako exekutiboa izan zara: zer da jefea izatea?

Erdipurdiko jefea izatea: batez ere burukomina. Baina nolabaiteko boterea izatearen esperientzia interesantea izan zen. Adibidez *Vaya Semanita* eta *Wazemanken* tankerako programen sorreran egon nintzen... halako proiektuak aurrera ateratzea oso polita da. Bilera batean aldeko arrazoiak azaltzea eta gero programaren lantaldearekin ongi komunikatzea. Produktzio sailean aurrekontu egokia defendatzea...

Auto berria estreinatu zenuen egunean Pozas kalean kontrako norabide debekatua hartu zenuen, Athleticen ezkutua helburu akaso?

Oro har nahiko despistatua naiz bai, eta batzutan oso arrisksua izan daiteke, batez ere neure buruaren kontra. Athletic? txikitatik irakatsi zidaten nire taldea izan behar zuela eta halako gauzak betiko izaten dira. Dena dela saiatzen naiz itsua ez izaten: euskaldunen talde bat ezin da eraiki horrenbeste euskadunen amorruekin.

Bi alabaren aita zaitugu: dakizunarekin, ezpata zorrotzen hasia izango zara...

Zakilak ebakitzeko? Nire burua erreprimitzen ikasi beharko dut, bai.

Jainkoarren! Araotz aldekoa duzu emaztea, bistan da. Izan al zara noizbait?

Emaztea legazpiarra da nahiz eta, bai, gurasoak araoztarrak izan. Uda askotan egunak igaro ditut hor eta bihotzez diotsut, oso gustura sentitzen naiz. Bertakoekin musean jolasten, mendietatik nire burua galtzen edota alabekin abereak deskubritzen. Benetan diotsut, biziki maite dudana auzoa da Araotz. ■